

ASPASOR (Arabako Gorren Guraso eta Lagunen Elkartea)



La Asociación ASPASOR surgió en 1977

C/ Aragón 11 - Vitoria-Gasteiz

945 287 392

info@aspasor.org / www.aspasor.org

ASPASOR entzumen-desgaitasuna duten pertsonen familiei eta eragindakoei eurei planteatzen zaizkien beharrei erantzuteko sortu zen. Arabako lurralde-eremuan diharduen irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Kolektiboaren ordezkari jarduten du bere helburuekin zerikusia duten erakunde eta instituzioen aurrean (publikoak zein pribatuak), eta entzumen-urriasuna dutenen beharretara egokitutako konponbideak aurkitzeko ekintzak ere gauzatzen ditu.

ASPASOR elkarteak Gizarte Arreta Zerbitzua eskaintzen du, familiei aholkuak eta laguntza emanez. eta 1998az geroztik Laneko Arreta eta Orientazio Zerbitzua. Gainera, Komunikazioko Bitartekaritza Zerbitzuaren bidez, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta gizarteratzea hobetzeko lanean dihartute. Zentroak bideoteka bat dauka, pertsona gorrentzako azpitoludun filmez osatua.

ASPASOR estatuko FIAPAS elkartean sartuta dago. FIAPASEk GAES enoresarejub dyeb kabjudetza-hitzarmenaren bidez, erakunde konfederatuetako kideei erraztasunak ematen zaizkie enpresa horrek esakintzen dituen produktu eta zerbitzueterako. FIAPASEk inplante koklearretarako aseguru-poliza indibidualizatua ere eskaintzen du.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetzak

ASPASOR elkartearekiko lankidetzak 2000.urtean hasi zen, erakundeak 'Gorren komunitatean Elebitasunari buruzko Jardunaldiak' egiten lagundu zuenean, gure aretoetako bat lagaz eta hedapen- eta informazio-ekintzak diruz lagunduz.

2004. urtetik aurrera, Vital Kutxaren Gizarte Ekintzaren eta Elkarrearen arteko lankidetzak ezarri zen, urtero sinatzen zituzten hitzarmenen bidez. Erakundearen laguntza, batez ere, lanbide-heziketako jarduerak ahalbidetzera bideratuta zegoen, laneratzeko, sentsibilizatzeko eta informazioaren hedapenerako. Vital Fundazioa denez geroztik, ASPASOR elkartearekiko urteko lankidetzak horri eutsi zaio, pertsona gorrei zuzendutako enplegu-eta prestakuntza-programa babestuz, eta Fundazioak Arabako gizartearen ongizatea hobetzeko egiten dituen laguntza-deialdietara aurkeztutako eskaerei erantzun zaie.